

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, garrantzi handia ematen diogu naturari eta sortzen dugun hondakinen birziklapenari. Baina ez gara konturatzen desegite guneetan inork berrerabiltzen ez dituen materiala pilatzen ari dela, besteak beste, hondatutako autoak eta hauen piezak. Egia da desegitean ondo dauden piezak birziklatu egiten direla, baina askotan autoa oso zaharra denez edo istripu bat sufritu duenez ezinezkoa da, izan ere, arriskutsua izan liteke egoera egokian ez badago, baina hauei beste erabilpen bat eman diezaiokegu.



Gizarte honetan gehienok eksklusibotasunaren bila gabiltza, eta azkenaldian geroz eta produktu eksklusiboagoak aurkezten ari dira etengabe, beraz, berri den hori lortu nahi dugu. Geroz eta material gehiago ekoizten ari gara, eta zaharra baztertzen eta pilatzen, inolako erabilerarik eman gabe.

Desegitean berrerabiltzen ez dituzten piezak, zatitzera eramaten dituzte eta azkenean oso zati txikiz osatutako izugarritzko hondakin multzoa sortzen ari da. Horrela jarraituz gero, inguruko natura kutsatzen jarraituko da, zelaiak, basoak, itsasoa... eta kutsaduraren larrialdia konponezina izango da.



Horregatik, guk, Irati, Aimar, Ane eta Maddik, Urretxu Zumarragako ikasleak, Startinnova proiektuan parte hartuko dugu gure auto-berrerabiltze enpresarekin, arazo honi erantzuteko. Desegitean dauden autoei erabilera bat eman, hauek berrerabiltzen eta beste modu batera eksklusibotasuna lortzen, altzariak egiten alegia.